

SALBADOR ZAPIRAIN «Ataño».—*Espetxeko negarrak*. Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1984.

Auspoa liburu saileko 179. zenbakia osatzen duen honek Bordazar baserria darama bere azalaren apaingarri. Hor sortua da egilea eta protagonista, horko gertaeratik hasten du penitentziatzko historia larria.

Gerra zibilaren hasieran zen zoritxarra, Nafarroatik reke-teak sartzean. «Bizkai aldean zebiltzan anaiak, aiek asmatu ziteken; ez guk. Iltzen baziran ere, bero-beroan ilko itun. Ez gu bezela, odol otzean, jaberik gabeko zakur zikin batzuk bezela, etsaien begien asegarri. Beren aberriaren alde ixuriko ziteken odola. Atsegin ori ere etzegoken guretzat». Hara hor herioa non eta zelan atseginago aurkitu zezaketen kezka idatziarazia. Izugarria benetan ehortzeko aukerarik eza. Gerraren zerga hori ere, gerrarik zitalena, anaiartekoa.

Etxean gelditu ziren anaiei ihazarako eskopeta eta perdigoi gehitxo aurkitzetik zetorkien oinazea eta hondamendia. Gainera: «Nori eman ion ire botoa?». Horiek izan ziren pakearen alde zirelako etxean gelditu ziren anaien pekatu nagusiak, gaizkile gisa espetxeratzean.

«Ataño», liburu honen egilea, maleziarik gabeko gizona nonbait, eta esperientzia izugarriak bizitzera iritsi zena. Heriotzara kondenaturik: «...utziak izan ginalako, al zutenen partetik. Nai zutenak, berriz, ezin ziteken». Gauero atea noiz joko, patiora atera eta paretaren kontra afusillatuak izateko. Gauero, hots berdina: «*Está usted liberado, prepárese*», esaldi maltzurra entzuteko beldurrez, gezurrezko dei horren ondorena bai zen heriotza. «Banaka-banaka, eun baño geiago ikusi genizkin txulo artatik, betiko joaten». Eta egilea harritzen zuena: «...berak ziotenez, katoliko ta kristauak...» izaki gorrotoa lege hartuaz odolez ase ezinik zabiltzanak. Gainera, «Ataño»ren ustez, zibilizazioa edo aurrerapena kristautasunaren ezaugarrietako bat zen, abere eta gizonaren berezkuntza

Jaunartzearen baitan zegoenez (ikus, 141-142. orr.). Sineskaitz zaio hiltzaileak katolikoak izatea, eta salatzailea auzoa edo ahaidekoa. «*Homo homini lupus* esan zuenak, bazekiken, nik orain arte ez bezela, gizonen griñaren berri. Neri ere ederki erakutsi zidatek orain». Eta horrela joango zen ilusioak galduz.

«Beren sasoirik onenean, ogei ta zortzi ta ogeita bederatzii urterekin, joan itun erru gabeko nere bi anaiak». Ondarretako kartzelan afusillatuak, ehundik gorako hilketa haien artean. «Errenderi'ko udaletxeak (*Udalak*, esan nahi du) etzin ikasi ere (hemen ordea, *jakin ere*, esan nahi du), noski, gu espetxean geundenik. Ori uan ortarako al guztiduna. Alkate zegona, gu gaztetxoak giñala, gure lengusu maitearekin maiz etortzen uan gure baserrira. Gurekin perretxikutan ibilli ere bai inguruko baso aietan. Egun aiek joan itun. Orain etzin gure bearrik».

Larrialdi ederrak pasa ondorean: «*Condenado a cadena perpetua*»-k lasaitu zuen gure gizona, gertakarien lekuko den liburu hau idazteko ere berrogei urteko diktadura igarotzeko zain egon zena.

Naturaltasunik zuzenenean idatzia da, erarik herrikoienean, eta haririk galdu gabe, pasarteetan tentsioa goraka eramanaz irakurleak azkeneraino interez biziarekin iharraitzekoa.

